# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-5245

297/1998 DEKRETUA, azaroaren 3koa, nekazaritzako elikagaien kalitate-izenei buruzko hainbat xedapen indargabetzen dituena.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzen dituen urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuan, honako egiteko hauek ematen zaizkio Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzari, alegia, kalitatedun elikagaien izenak eta markak finkatzea eta kudeatzea hain zuzen. Horretarako, sektoreko enpresek izen horiek erabil ditzatela sustatu beharko du, Kontseilu Erregulatzaileak eta kudeaketa-erakundeak eta kontrolerakoak sortu eta kontrolatuz.

Jardute eremu horren barruan eta irailaren 19ko 203/1989 Dekretuaren bidez, Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela sortu zen eta, geroago, label horren babespean zeuden produktuak arautzen zituzten aginduak garatu ziren. Horietaz aparte, «Euskal Baserri» marka sortu zen otsailaren 15eko 94/1994 Dekretuaren bidez. Baratzeko frutazaintzako produktuei dagokie marka hori.

Azken urte hauetan jaso den esperientziak eta nekazaritzako elikigaien kalitate-izenen arloaren egoerak eta erregulazio juridikoak izan duen bilakaerak, aipatu diren arau horiek indargabetzea eskatzen dute.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko azaroaren 3an egin duen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Ondoren aipatzen diren arauak indargabetu egiten dira:

1.– Irailaren 19ko 203/1989 Dekretua, Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela sortzeari buruzkoa. (EHAA, 183, 1989ko irailaren 29koa).

2.– 1993ko apirilaren 29ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, latxa eta karrantzar arrazetako esneko arkumeari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 99, 1993-05-28).

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### N°-5245

DECRETO 297/1998, de 3 de noviembre, por el que se procede a derogar determinadas disposiciones normativas en materia de denominaciones de calidad para productos agroalimentarios.

El Decreto 81/1995, de 31 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, atribuye a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria el establecimiento y gestión de denominaciones y marcas de calidad alimentaria, fomentando su utilización por las empresas del sector, constituyendo y controlando los Consejos Reguladores y organismos de gestión y control correspondientes.

Dentro de este ámbito de actuación, y a través del Decreto 203/1989, de 19 de septiembre, se creó el Label Vasco de Calidad Alimentaria, y posteriormente se desarrollaron las Ordenes que regulaban los productos amparados por dicho Label. Por otra parte se creó la marca «Euskal Baserri» para productos hortofrutícolas a través del Decreto 94/1994, de 15 de febrero.

La experiencia acumulada en estos años, y la evolución de la situación y regulación jurídica de la materia de denominaciones de calidad para productos agroalimentarios, aconsejan la derogación de la normativa precitada.

En su virtud, a propuesta del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de noviembre de 1998,

DISPONGO:

*Artículo Único.–* Se procede a la derogación de las disposiciones normativas que se enumeran a continuación.

1.– Decreto 203/1989, de 19 de septiembre, por el que se crea el Label Vasco de Calidad Alimentaria (BOPV n.º 183 de 29 de septiembre de 1989).

2.– Orden de 29 de abril de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria al cordero lechal de las razas latxa y carranzana y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 99 de 28-5-93).

3.– 1993ko apirilaren 29ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Arabako patatari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 109, 1993-06-11).

4.– 1993ko ekainaren 15eko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Gernikako piperrari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 132, 1993-07-14).

5.– 1993ko urriaren 26ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Baserriko oilaskoari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 13, 1994-01-20).

6.– 1993ko uztailaren 29ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, eztiari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHEE, 207, 1993-10-28).

7.– 1994ko uztailaren 5eko Agindua, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, kalitateko euskal okelari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena.

8.– Otsailaren 15eko 94/1994 Dekretua, baratzako frutazaintzako produktuentzako «Euskal Baserri» marka arautzen duena. (EHAA, 52, 1994-03-16).

9.– 1997ko urriaren 10eko Agindua, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Ibarrako piperrari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 204, 1997-10-24).

10.– 1997ko azaroaren 7ko Agindua, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, tomateari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labela emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 220, 1997-11-17).

11.– 1998ko urtarrilaren 8ko Agindua, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, pasterizatutako esneari Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal emateari buruzkoa eta bere erregelamendu teknikoa onartzen duena. (EHAA, 18, 1998-01-28).

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Hiru kidek osatuko duten Batzorde Kudeatzaile bat izendatzen da: Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariak, Zerbitzu Orokorren zuzendariak eta Lege Aholkularitzarako arduradunak hain zuzen. Elikagaien Kalitateari buruzko Euskal Labelaren Kontseilu Arauemaileak izango du batzorde hori likidatzeko eta disolbatzeko eskumena, haren egitekoak bereganatu egingo dituela erabat ezabatu arte.

3.– Orden de 29 de abril de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria a la patata de Álava y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 109 de 11-6-93)

4.– Orden de 15 de junio de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria «Gernikako Piperra» y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 132 de 14-7-93).

5.– Orden de 26 de octubre de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria «Baserriko Oilaskoa» y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 13 de 20-1-94).

6.– Orden de 29 de julio de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad alimentaria de la Miel y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 207 de 28-10-93).

7.– Orden de 5 de julio de 1994, del Consejero de Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria de la carne de vacuno «Kalitateko Euskal Okela» y se aprueba su reglamento técnico.

8.– Decreto 94/1994, de 15 de febrero por el que se regula la marca «Euskal Baserri» para productos hortofrutícolas (BOPV n.º 52 de 16-3-94).

9.– Orden de 10 de octubre de 1997, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria «Guindilla de Ibarra», «Ibarrako Piparra», y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 204 de 24-10-97).

10.– Orden de 7 de noviembre de 1997 del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria del Tomate y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 220 de 17-11-97).

11.– Orden de 8 de enero de 1998, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca por la que se reconoce el Label Vasco de Calidad Alimentaria de la Leche Pasterizada y se aprueba su reglamento técnico (BOPV n.º 18 de 28-1-98).

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Se designa una Comisión Gestora, compuesta por tres miembros, el Director de Política e Industria Agroalimentaria, el Director de Servicios Generales y el Jefe de la Asesoría Jurídica, que se encargará de la liquidación y disolución del Consejo Regulador del Label Vasco de Calidad Alimentaria, asumiendo sus funciones hasta su total extinción.

Kontseiluari dagozkion eta erabakitzeke dauden eskubideak eta obligazioak likidatu ondoren egingo da ezabaketa. Udanahi ere, horrako hori 1998ko abenduaren 31n gertatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko azaroaren 3an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

La extinción se realizará una vez que se hayan liquidado los derechos y obligaciones pendientes correspondientes al mismo. En cualquier caso, ésta se producirá el 31 de diciembre de 1998.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**Zk-5246**

AGINDUA, 1998ko azaroaren 9koa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko notaritzan hutsik dauden lanpostuak betetzeko ohiko lehiaketaren ondorioz notariak izendatzen dituena.

Irailaren 29ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 1998ko irailaren 7ko Erabakiaz konbokatutako ohiko lehiaketan sartu eta hutsik dauden notaritzak betetzeko prestatu den espedientea ikusi ondoren, Autonomi Estatutuko 10.22 atalean xedatutakoarekin bat eta otsailaren 7ko 141/1995 Dekretuan (otsailaren 20ko 35 zenbakia duen EHAA) ematen zaizkidan eskuduntzez baliatuz, hauxe

ERABAKI DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta lehen iragarri diren notaritzak betetzeko, ondoren zerrendatzen diren notariak izendatzea:

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**N°-5246**

ORDEN de 9 de noviembre de 1998, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se procede al nombramiento de Notarios en Resolución de Concurso Ordinario de vacantes existentes en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el expediente instruido para la provisión de Notarías vacantes, comprendidas en el Concurso Ordinario convocado por Resolución de 7 de septiembre de 1998 y publicado en el Boletín Oficial del Estado de 29 de septiembre de 1998, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía y en uso de las facultades conferidas por el Decreto 141/1995, de 7 de febrero (BOPV n.º 35, de 20 de febrero),

RESUELVO:

Nombrar para proveer las Notarías anunciadas radicadas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a los Notarios que se relacionan a continuación: